

2017/00000472 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, 2017/03/24

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- Ereñotzu Toki Entitate Txikiaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak:	60.022,17
2.- Kobratu gabeko saldoak:	133.223,70
3.- Ordaindu gabeko saldoak:	92.021,34
4.- Aplikatu gabeko partidak:	0,01
5.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3+4):	101.224,54
6.- Saldo kobragaitzak:	0,00
7.- Diruzaintzako gerakin likidoa (5-6):	101.224,54
8.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0,00
9.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (7-8):	101.224,54
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-109.518,41
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-1.038,75
12.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	136.229,66
13.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
14.- Aurrekontu emaitza (10+11+12+13):	25.672,50

Informazio osagarria:

15.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	-29.080,20
16.- Kredituak txertatu ondoren Gerakin erabilgarria (7-15):	72.144,34

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Luis Intxauspe Arozamena alkatea agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea

